

EGINDAKO SATELITEAK

Iretargiaren antzera dabiltz lurraren biran eta ludiaren erakar-indar edo atrakzioaren eta urrintzera jokerearen indarrak.

Iparramerikarrak izan dira lenengoak olako sateliteak barriro eskuratzen: Diskoer XIII izan zan lurraren biran 750 000 km. eginda, 29 ordu bete ondoren lurrera ekarri ebena.

Diskoer XIV egin eben gero. Errusiarrak txakur eme bi bialdu ebezan eta gero ekarri.

Sateliteak eguratsaren barriak emoten ebezan asieran, baiña gaur argazkiñak, irratiak eta telebista-tresnak daroez eta 1962n. urtean asita telebistak mundu guztian barriak alkarri emoteko eta telekomunikabideetan erabil-teko dira, eta telefono-bideak izateko be.

IZAR-ARTEKO GELTOKIAK

Au da urrengo urratsa: Alemanak asi ziran izarbelen artean egonleku edo geltokiak ipinteko usteetan: Satellite aundiak dira oneik eta ordu bian emoten dautsoe bira gure munduari.

Lenengo zeregiña jakintza-gaiak aztertzea da, erakar-indar barik gauza barriak ateraten diralako, gero andik izartegia aztertuko dabe eta bertatik beste geltoki bat urriñago ipinteko bideak artuko dira eta emendik ara joan-etorriak be erreztu eta ugaritu egingo dira. Asi dira dirudunak ara joan-etorriak eratzen.

Gizonak koetearen barruan dirala egin bearko dabe lan, izartegiko soiñekoz edo "eskafandra"z jantzita, arna-sea artzeko bideak be billatzen dabez.

Eta, danaren gaiñean babeski mee eta gogor bat dau-kela, barruan daukez ofizinak, laboratorioak, begira-kabinak, jantokia, lo-gelak... eta dana ondo ta eroso. 30 edo 50-bat lagun bizi al izango dira barruan, izartegian eta emendik 2 000 km.'ra.

Koeteak eroango dautsez janariak, 500 kg. Eta ura, edariak, oksijenoa... Oneik dira izartegiko taxiak.

Taxi ori ara eltzen danean kanpoko atea idegiten da eta taxia sartu eta gero kanpoko atea itxi eta barrukoa zabaldu. Eta ori abiada ikaragarria galdu barik. Taxi dan koete ori barriro lurrera datorrenean, ondakin guztiak ekarri bear dauz. Ezin leiotik bota, etengabeko biraketan geratuko litzakezelako.

IZARBELETAKO GIZAKIA

1961n. urtean, urterillaren 31n. egunean joan zan izartegira Han 65. Txinpanze ondo ezi bat barruan eroia-la eta onek ondo bete eban bere zeregiña. 13 minutu barru ibilladia eginda etorri zan eta ortik ikasi zan, Mer-kury eginbidean zelan bialdu ara gizakiak.

Aste bi geroago Errusiarrak bialdu eben satellite aundi

bat eta andik Marte'ra koete bat. Iru illebetean eldu zan Marte'ra.

1961'ko jorraillaren 12n. egunean jantzi zan ibillaldi aundirako Yuri Gagarin. 9'ak eta 7'an urten eban eta banan-banan iru zatiak bidean itzi-ondoren eldu zan gure ludia biribil ikusteko lekura eta an egoala emendik azter-tzen eben bere gorputzak zelan erantzuten eban. Gero etorri egin zan.

Urte beratan beste ipar-amerikar bik egin eben ori.

1968n. urtean gabonetan Apolo VIII iparramerikarra bialdu zan iru gizon barruan ebazala.

IZAR-ARTEAN IBILTEKO AMETSA

Ametz ori bizi daukagu gizakiok, baiña bideak luzeak eta ibilgaillu ariñik ez. Argiaren beste, segundoko 300 000 km. ibilli arren be, ori gitxi da argi-urteak eta millak urtetan ibilli bear dalako.

Baiña zer jazoten da Einstein'ek, errelatibitate bidea kontuan dala, atera eban argiaren abiada ori baiño aun-diagoa lortu ezker? Aldiak atzerantza egiten ei dau eta izarretatik datorrenak itxaso aundian iru puntu baltz, iru ontzi ikusten ba-dauz, Kolon'en iru ontziak izan ei leite-kez. Gauza arrigarria eta pentsagarria ori!

Eta urrats bat. Iretargira eldu gara eta an ateratako argazkiak telebistan ikusi al izan doguz. Ez ei ziran bene-takoak. Benetakoak txarto urten ei eben eta gero beste batzuk egin eta orreik emon ei euskuezan. Dana dala, egia da, ara eldu giñala: "Gizonaren urrats txikia, gizadia-rentzat urrats aundia" ikusi gendun.

ZELAKO ALEGINAK EGIN ZIRAN

Txina'n polborea asmatu eben eta an egin ziran lenen-go koete edo txaplieguak, gero su-sirien leiaketak ikus-ten doguz, baiña ortxe dago danaren oiñarria.

Bigarren ludi-gudan alemana izan ziran V1 eta V2 koeteak antolatu ebezanak Breña aundiaren aurka.

Gero koete zatidunak asmau ziran, bidean zati bi galdu eta ariñago egiteko.

Blockhaus'en egiten dira izartegira jaurtiteko koe-teak eta irugarren zatiaren barruan eltzen da satelitea: 400 km.'ra izten dau lenengo zatia, 15 000 km.'ra biga-rrena eta eguratsa izten dauanean azala galtzen dau andik aurrera alboko ikutuak berotzen ez daualako, eta satellite utsa geratzen da. Onek ordu bian emoten dautso bira gure munduari. Laster atomo edo kizi- indarragaz joango dira.

Aurrerapen aundiak daukaguz eta itxaropen aundia-goak.

OLAZAR'tar Martin'ek